

## 11. ISUNAK

kontuz ibili Gasteizen!

kalea garbi

aholkua ala zigorra?



Isunak izango ditugu hizpide oraingo honetan. Gai hau era askotara hartu badaiteke ere, hemen aztertuko duguna isunen baliagarritasuna izango da. Hori dela eta, hiru ataletan banatu dugu eginkizuna. Hasteko, zigortutako kasu batean oinarrituta, antzeko jokabideak isunen bidez zigortzea bidezkoa iruditzen zaizun azaltzeko aukera izango duzu.

Hurrengo atalean, berriz, isunak eta zigorrak beharrezkoak ote diren eztabaidatuko dute irratsaio batean, eta horien inguruko argudioak baloratuko dituzu.

Azkenik, giza baloreez aritzen den artikulua bat irakurri ondoren, jokabide desegokien oinarria aztertuko duzu.

## kontuz ibili Gasteizen!

- Hasteko, hiritar bati isuna jarritako poliziaren piura xelebrea ikusteko aukera izango duzu: Tricycle taldearen irudiak<sup>1</sup> dira. Ikusi eta gero, saia zaitezte egoera asmatzen, ondoko galderei erantzunez:

1. Zer gertatu da?
2. Zergatik haserretu da emakumea?
3. Zergatik azaldu da bigarren polizia?

- Gasteizko Udala ez da makala isunak jartzen; irakurri, bestela, hurrengo albistea<sup>2</sup>. Segituan ohartuko zarete isunaren diru kopuruak ezabatu ditugula. Zuen eginkizuna hauxe da: kopuruaren zerrendatik hartuta, zuzena ipintzea hutsune bakoitzean. Honakoak dituzue diru kopuruak: 90, 90, 750, 750, 751, 1.500, 1.501 eta 3.000 euro.

argi eta, batez ere, garbi

**GASTEIZKO GARBIKETA ARAUTEGI BERRIA.** Udalak onartutako ordenantzaren arabera, \_\_\_\_ - \_\_\_\_ euro bitarteko isuna jarriko zaio kalean txiza egin edo txistua botatzen duenari.

LUIS KARLOS GARCIA – GASTEIZ

Oraindik ez dago indarrean, baina otsailetik aurrera kontu handiz ibili beharko dute gasteiztarrek, garbiketari buruzko arautegi berria dela eta. Ordenantzak xede nagusia «ingurumenaren babesa» duela dio hasierako aipuetan, baina mota askotako esparruen gainean aginduko du: adibidez, \_\_\_\_ eta \_\_\_\_ euro bitarteko isunak jarriko zaizkie «kalean edozein eratako pintatzeak» egiten dituenari edo paretan «baimenduko gabeko 50 afixatik gora» jartzen dituenari.

Azkenean, kalean txiza egitea ez da falta larritzat hartu, arintzat baizik, eta, beraz, *soil-soilik* \_\_\_\_ eta \_\_\_\_ euro bitarteko isunak pagatu beharko dira. Beste horrenbeste ordainduko du kalean kaka egin duen txakurraren jabeak, *oparia* jasotzen ez baldin badu. Txistua botatzen duenak ere hobe du bi aldeetara begiratzea ezer egin baino lehen. Eta elurtea dagoela etxeko ataria garbitzen ez duenak \_\_\_\_ eta \_\_\_\_ euro bitarteko isunak ordaintzeko arriskua daukala jakin behar du.

kontuz ibili Gasteizen!

- Denok ados zaudetenean, galdetu irakasleari ea asmatu duzuen.
- Gasteizko Udalak egindako delituen hierarkiarekin bat al zatozte? Sailkatu kasu horiek arinenetik larrienera.

A vertical rectangular box with a yellow border and ten horizontal dashed lines for writing.



- Hitz egin dezagun jaso zenuen azkeneko isunaz. Erantzun iezaiezu galdera hauei eta azaldu ikaskideei gertatutakoa.

1. Noiz jaso zenuen azkeneko isuna?
2. Zergatik jaso zenuen?
3. Bidezkoa iruditu al zitzaizun?
4. Eskatutako kopurua neurrikoa iruditu al zitzaizun?
5. Zer egin zenuen?



- Hemen dituzu gaiaren inguruko iritzi batzuk. Aztertu banan-banan eta aldeko edo kontrako postura hartu eta taulan adierazi.

adós nago ✓ ez nago adós ✗

Isunak eta zigorrak **inoiz baino beharrezkoagoak dira** gaur egun.

Txistua botatzeagatik, zaborra ontzitik kanpo botatzeagatik, debekatutako tokian zigarroa erretzeagatik... eta antzeko gauzengatik **ez litzateke isunik edota zigorrik jarri behar**.

**Isunaren edota zigorraren beldur ez bagina**, gehienok ez genituzke zergak ordainduko edota trafiko-arauak errespetatuko.

Zenbait jokabide, okerrak izan arren, ulertu egin beharko genituzke. Adibidez, debekatutako tokian aparkatzeak, zikinkeria lurrera botatzeak, kalean txiza egiteak... **ez lukete zigortuta egon behar.**

Oker jokatzeko duenari **kontu hartzea nahikoa da**; eraginkorragoa kasu gehienetan. Isuna edota zigorrarekin **amorratu baino ez gara egiten** eta, ahal dugun hurrengoan, lege-haustea gogo handiagoz errepikatzen dugu.

**Jokabide zuzenak saritzea** zigorraren estrategia erabiltzea baino **eraginkorragoa da.**

- Eman ikastaldeari taulan jaso duzunaren berri, arrazoiak emanez.



- Orain, taldeka, zerrenda itzazue zuen ustez kalean gerta daitezkeen legehauste arinak eta larriak, eta bakoitzari jarriko zeniketen isuna. Ondoren, gai-nontzeko taldeei azalduko diezue osatutakoa.

arinak	isuna	larriak	isuna
-----	-----	-----	-----
-----	-----	-----	-----
-----	-----	-----	-----
-----	-----	-----	-----
-----	-----	-----	-----
-----	-----	-----	-----
-----	-----	-----	-----
-----	-----	-----	-----
-----	-----	-----	-----
-----	-----	-----	-----

- Zer iruditzen zaizue Gasteizko Udalak hartutako bidea? Uste al duzue mota horretako jokabideei aurre egiteko horixe dela biderik eraginkorrena?



## aholkua ala zigorra?



Batzuen ustez, isunak areagotzearekin ez omen da gauza handirik lortzen; are gutxiago azken urteotan delituzko kasuak areagotu direla pentsatzen dutenentzat. Egoera horren aurrean, beste neurri batzuk hartu beharra dagoela ari dira aldarrikatzen.

- Hemen dituzue eguneroko bizitzako zenbait eremu eta horietan eman ohi diren bidegabekeria eta lege-hausteetako batzuk. Taldeka jarrita, osa ezazue bidegabekerien zerrenda, gehiago idatziz.

## aholkua ala zigorra?

eremuak Familia	bidegabekeriak Tratu txarrak...
Eskola, hezitzaileak	Irainak...
Gizarte-bizitza	Autoa modu arriskutsuan gidatu...
Ondasun eta zerbitzu publikoak...	Hiriko altzariak hondatu...
Kontsumoa	Iruzurrak egin...
Lanerako harremanak	Lankideei edota menpekoei jazarpena egin...

- Orain, gainerako taldeekin komentatuko duzue zeuen ekarpena, baita zuena osatu ere beraiek adierazitakoarekin.





- Aldizkari batetik ateratako testu hauetan jasotzen dira gizarte-bizitza gozatzeko lagundu ahal duten hainbat jokabide. Irakurri.

1. **Pertsona nagusiak errespetatu:** ia inposaketa gisa bizi izan dugu "aita edo ama, aitona edo amona delako"; esanekotasun itsu horren lekuan, neke handiko bizitzaren bidez gure gizarte aberats hau eman digutenekiko zinezko errespetua behar dugu.

2. **Hezitzaileei prestigioa eman:** lanbide horri berriro merezi duen duintasuna eman eta autoritatea onartu. Eta haur, gazte eta helduei hala ulertarazi. Ezinbestekoa da.

3. Inguruan ditugun ahulekiko **elkartasuna erakutsi** (eta ez bazterturikoekikoa bakarrik).

4. **Ondasun eta zerbitzu publikoekiko errespetua sustatu:** "hau guztiona da eta egoera onean egon dadin zaindu behar dugu" maximorekin eta denon ondarea geurea balitz bezala zaintzeko ardurarekin hezi.

5. **Ez gaitzala kontsumismoak eraman.** Ongizate materiala ez da txarra, baina saia gaitezen kontsumitzaile zentzudun eta informatuak izaten eta eroste hutsagatik erostera eramaten gaituen antsietatea kontrolatzen. Frustrazioa, hondamen ekologikoa eta beste atsekabe prosaikoago batzuk besterik ez dizkigu eragingo.

6. **Entzuten ikasi:** baldintzarik gabe (epairik eta aurreiritzirik gabe), era aktiboan eta enpatiaz, solaskidearekin egiazko komunikazioa lortuz eta bere lekuan jartzeko ahalegina eginez.

7. **Itxoiten, nork bere txandaren zain egoten ikasi.** Lehena izateko eta gauza guztiak lehen kolpean eta azkar lortzeko antsietatea gainditu. Besteak ere zain daude.

8. **Galtzen eta huts egiten ikasi** eta porrota garapen pertsonalean ikasteko oinarritzeko prozesu gisa onartzen ikasi. Ezezkoa dramarik gabe onartzen jakin behar da. Askok entzun beharko ditugu bizitzan zehar.

9. **Erantzukizunaren zentzua garatu,** esfortzuaren kultura indartu. Antolakuntza, puntualtasuna, gauzak ongi egiteko gogo... oso planteamendu positiboak dira.

10. **Auto-estima indartu,** geure burua zaindu. Nork bere buruarekiko onarpena, estimazioa eta arreta zaindu.

## aholkua ala zigorra?

- Orain, "bidegabekeriak" zerrendan idatzi dituzunak beheko taulara ekarri behar dituzu. Ondoren, markatu X batez bidegabekeria bakoitza zein jokabideren (1, 2, 3...) kontra doan.

bidegabekeriak

	1
	2
	3
	4
	5
	6
	7
	8
	9
	10

142



- Erakutsi zure taula ikaskide bati, ea zurekin konforme dagoen.

oharrak

Lined writing area with horizontal dashed lines.

oharrak

Lined writing area with horizontal dashed lines.

